UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER
COURSES
UPV/EHU

www.uik.eus

# I NAZIOARTEKO KONGRESUA:
# ZIENTZIA ETA KUDEAKETAREN ARTEKO ZUBIAK ERAIKIZ BIOSFERA ERRESERBETAN.

IRAUNKORTASUN AGENDA 2030 OSOTUZ GIZARTE ETA LURRALDEEN IRAUNKORRETARANTZ.




# I. JAKINARAZPENA

**2019ko Azaroaren 13tik 15era**
**Ekoetxea Urdaibai**
**Busturia, Bizkaia**

Urdaibai Biosfera Erreserba Reserva de la Biosfera — EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

# I NAZIOARTEKO KONGRESUA: ZIENTZIA ETA KUDEAKETAREN ARTEKO ZUBIAK ERAIKIZ BIOSFERA ERRESERBETAN.

IRAUNKORTASUN AGENDA 2030 OSOTUZ GIZARTE ETA LURRALDEEN IRAUNKORRETARANTZ.

Azaroaren 13tik 15era, Ekoetxea Urdaibai, Busturia (Bizkaia).

## LEHEN JAKINARAZPENA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzuak, UPV/EHUko Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedrarekin batera, *ZIENTZIA ETA KUDEAKETAREN ARTEKO ZUBIAK ERAIKIZ BIOSFERA ERRESERBETAN. IRAUNKORTASUN AGENDA 2030 OSOTUZ GIZARTE ETA LURRALDE IRAUNKORRETARANTZKO BIDEAN. I NAZIOARTEKO KONGRESUA* antolatu du.

### ANTOLAKUNTZA BATZORDEA

**Zuzendaritza:** Urdaibai Biosfera Erreserbako Zerbitzua.

**Zuzeneko kolaboratzailea:** UPV/EHUko Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruz UNESCO Katedra.

**Koordinazioa eta idazkaritza teknikoa:** UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa.

### BATZORDE ZIENTIFIKOA ETA AHOLKU BATZORDEA (*behin-behinekoa, pertsona gehiago batuko dira*)

**Ibone Amezaga,** UPV/EHU, **Xabier Albizu,** SRB Urdaibai, **Xabier Arana,** Bizkaiko Foru Aldundia, **Arantza Acha,** UNESCO Etxea, **Juan Arizaga,** SCAranzadi, **Jon Asua,** SRBUrdaibai, **Alejandro Cearreta,** UPV/EHU, **David Hoyos,** UPV/EHU, **Ignacio Palomo,** BC3, **Isabel Albizu,** NEIKER, **Adolfo Uriarte,** AZTI, **Angel Borja,** AZTI, **Alberto Castro,** SCAranzadi, **Ibon Galarraga**, BC3, **Niko García-Borreguero**, SRBUrdaibai, **Marta Iturribarria,** Gobierno Vasco, **Jaione Lanborena**, IHOBE, **Joseba Martínez,** INGURUGELA, **Alberto Hernández-Salinas,** UNESCO, , **J. Carlos López Kintana**, AGIRI, **Manu Monge-Ganuzas,** SRBUrdaibai, **Roke Pérez-Agote**, Ekoetxea-Urdaibai, **Elisa Sainz de Murieta** , BC3, **Joseba Santorum,** SRBUrdaibai, **Miren Onaindia,** UNESCO Katedra UPV/EHU, **Leire Sarobe Txopeitia,** Cristina Enea Fundazioa. **Aitana Uria,** UNESCO Etxea.

## NORI ZUZENDUA:

- Ikerlariak: Urdaibai Biosfera Erreserban lan egiten dutenak.
- Teknikariak: Urdaibai Biosfera Erreserben arloan lan egiten dutenak.
- Ikerlariak: Munduko Biosfera Erreserbetan lan egiten dutenak.
- Beste edozein.
- Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzeko lan egiten duten GKE-ak, entitate publikoak zein pribatuak.

## HELBURUAK

Kongresu honek Urdaibai Biosfera Erreserbako Garapen Iraunkorraren Arloko Interpretazio, Ikerketa, Gaikuntza eta Hezkuntza Planean (PICE-IGHP) 2015-2025 du oinarri. Bere helburu nagusiak honako hauek dira:

- **Biosfera Erreserbetan egiten den lan zientifikoa eta horren aplikazio-aukerak kudeaketetarako identifikatzea.**
  Biosfera Erreserben kudeaketa iraunkorrak erabakiak hartzeko informazio zientifiko objektiboa behar du. Zientifikoek ekoiztutako informazio hori ezagutzan bilakatu beharra dago berriz. Ezagutza hori kudeaketan erabili behar da erabakiak hartu ahal izateko. Horrela, gizarteak eta lurraldeak iraunkortasunerantz abiatu ahal izango dira.
- **2030eko Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburuen integrazioa.**
  Nazio Batuek gure mundua eraldatzeko estrategia aurkeztu dute: Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda. Berau, Garapen Jasangarrien Helburuetan garatzeko asmoa dago, hots, Planeta, Pertsonak, Onura eta Parte-hartzea ardatz dituzten 17 helburuetan.

Kongresu honetan komunikazio zientifikoez gain, **parte-hartzeak** ere garrantzi handiko tokia hartuko du. **Eztabaidarako mahaiak** eta kudeaketa eta ikerketaren ezagutza-beharrak integratzen dituzten **lan-dinamikak** proposatuko dira, aukerak, zailtasunak, erronkak, gako-eragileak eta intereseko beste alderdi batzuk modu aktiboan islatu ahal izateko.

Gainera, interesa duten guztiek erakusteko lekua izan dezakete panela edota ikus-entzunezko materialak erakustek Kongresuan baitan.

## HIZKUNTZAK

Kongresua euskaraz eta gazteleraz izango da. Itzulpena ingelesezko hitzaldi nagusietan izango da soilik (euskara / gaztelera). Ingelesez egindako posterrak edota komunikazio-proposamenak onartuko dira.

## LEKUA



Ekoetxea Urdaibai (Busturia, Bizkaia).

Urdaibai Biosfera Erreserbaren Zerbitzuaren egoitza da.

## GARRAIOA

**Trenez: Bilbo - Bermeo Euskotreneko línea:**

- Irteera Bilbon: Atxuriko edo Boluetako geltokitik.
- Helmuga: Busturia (San Kristobal).
- Egin klik hemen ordutegiak ikusteko

**Autobusez: Bizkaibus A3515 Bilbo - Amorebieta Etxano - Gernika – Bermeo linea:**

- Irteera Bilbon: Abandoko geltokitik edota Juan de Garay kaletik (Zabalburu Plaza).
- Helmuga: Busturia (San Bartolome).
- Bila itzazu hemen geltokiak eta ordutegiak

**Nola iritsi autoz, Bilbotik:**

1. Bilbotik A8 autobidea hatu, Donostia/Frantzia aldera.
2. Amorebieta-Etxano / Gernika irteera. Genika noranzkoa.
3. Gernikan, Bermeorako noranzkoa. Forua eta Murueta iragan ostean, Busturiara abiatu (San Bartolome auzoa).

**Nola iritsi autoz, Donostiatik:**

1. Donostian, hartu A8 autobidea, Bilboko noranzkoan.
2. Zornotza / Gernika irteeran, hartu Gernikako noranzkoa.
3. Gernikan, hartu Bermeoko noranzkoa. Forua eta Murueta pasatu ondoren, Busturiara iritsiko zara (San Bartolome auzoa).

## OSTATUTA

Bertan Ecohotelak, Apartamentuak eta Landa Etxeak aurki ditzakezu. Ekoetxea Urdaibai inguruetan hotel eta aterpetxe ugari daude. *Viajes Ecuador* agentzia zure esku dago zure ostatu erreserbatu ahal izateko.

Viajes Ecuador
Gran vía 81- 2" planta
48011 Bilbao
Erref. Ekoetxea 273-19

Tel. 0034 945 13 21 44
alavaempresas@globaliact.com

**OHARRA:** Prezio hobeak eta eskaintza eta erabilgarritasun handiagoa lortzeko, oso garrantzitsua da aldez aurretik ostatua erreserbatzea.

## DATA BEREZIAK

| | |
|---|---|
| ➢ Webgunea argitaratzea eta lehen zirkularra | Otsailak 2019 |
| ➢ Laburpenen bidalketa | Apirilak 20 – Maiatzak 31, 2019 |
| ➢ Matrikula | Apirilak 20 - Urriak 30, 2019 |
| ➢ Komunikazioen onarpena | Maiatzak 2019 |
| ➢ Bigarren zirkularra eta behin-betiko egitaraua | Ekainak 2019 |
| ➢ Hautatutako komunikazioak | 2019ko Uztailaren 15a |
| ➢ Kongresua | Azaroak 13-16 2019 |
| ➢ Indexatutako argitalpenerako lanen ematea. | Martxoak 2020 |

## MATRIKULA PREZIOAK

| | **Ekainaren 20a baino lehen** | **Ekainaren 20tik aurrera** |
|---|---|---|
| ➢ Matrikula arrunta | 40 € | 50 € |
| ➢ Ikasleak | 20 € | 30 € |
| ➢ Bizita osagarria | Tarifaren barne | |

Izena emateko matrikula [www.uik.eus](http://www.uik.eus) plataformaren bitartez egingo da.

Matrikula prezioak saio zientifikoetara eta hitzaldi nagusietara joateko eskubidea, komunikazio liburua eta kafe-atsedenaldiak izateko eskubidea ematen du. Bisita osagarria matrikula prezioaren barne dago baita ere, baina erregistratzeko plataforman erreserba egin behar da.

Ikasleen kuota ikaslearen egoera egiaztatzen duten pertsonei soilik aplikatuko zaie.

Ostatua eta bazkariak parte-hartzaileek ordaindu beharko dituzte.

## SAIOAK

Kongresua 4 Saioetan antolatuta dago, Garapen Iraunkorrerako Agenda 2030ak Urdaibaiko Biosfera Erreserbarako ezartzen dituen Garapen Iraunkorrerako Helburuetan oinarrituz:

- **S1. PLANETA**

  Garapenak ondare natural eta ekosistemen osasuna bermatu eta baliabide naturalen kudeaketa iraunkorra ahalbidetu behar ditu.




- **S2. GIZARTEA**

  Pertsona guztiek duintasunez eta berdintasunez bizi behar dute ingurune osasuntsuan.




- **S3. ONURA**

  Ekoizpen eta kontsumo iraunkorra beharrezkoak dira pertsona guztiei baliabideak lortzeko eta desberdintasunak murrizteko.




- **S4. ALIANTZAK ETA HEZKUNTZA**

  **Parte-hartzea:** Hezkuntza, SDGen bihotza eta maila guztietako eragile sozialen arteko aliantza da.



## ATARIKO EGITARAUA

| | |
|---|---|
| **Azaroaren 13a, asteazkena** | |
| 08.30 – 09.00 | Harrera eta kafea |
| 09.00 – 09.20 | **Kongresuaren inaugurazioa**<br>***Erakundeetako ordezkariak:*** *Eusko Jaurlaritza, DFB/BFA, Busturiako Udaletxea, UNESCO Paris, Cátedra UNESCO UPV/EHU.* |
| 09.20 – 10.00 | **Irekiera hitzaldia**<br>"Investigación para la sostenibilidad" |
| 10.00 – 11.00 | **Mahai eztabaida**<br>"Investigación para la sostenibilidad" |
| 11.00 – 11.30 | Kafe-etenaldia |
| 11.30 – 14.00 | **1. SAIOA. PLANETA**<br>Komunikazioak 10' (Gehienez 12 komunikazio) |
| 14.00 – 15.00 | Bazkari-etenaldia |
| 15.00 – 17.30 | **2. SAIOA. GIZARTEA**<br>Komunikazioak 10' (Gehienez 12 komunikazio) |
| **Azaroaren 14a, osteguna** | |
| 09.00 – 09.15 | Harrera eta kafea |
| 09.15 – 09.45 | **Hitzaldia**<br>"Investigación/gestión. Sostenibilidad en reservas de Biosfera" |
| 09.45 – 11.00 | **Mahai eztabaida**<br>"Investigación/gestión. Sostenibilidad en reservas de Biosfera" (Alianzas) |
| 11.00 – 11.30 | Kafe-etenaldia |
| 11.30 – 14.00 | **3. SAIOA. EKONOMIA**<br>Komunikazioak 10' (Gehienez 12 komunikazio) |
| 14.00 – 15.00 | Bazkari-etenaldia |
| 15.00 – 17.30 | **4. SAIOA: ALIANTZAK**<br>Komunikazioak 10' (Gehienez 12 komunikazio) |
| **Azaroaren 15a, ostirala** | |
| 09.00 – 10.00 | **Itxiera hitzaldia**<br>"Retos y oportunidades de la investigación en Reservas de Biosfera" |
| 10.00 – 10.45 | **Partaidetza prozesuaren emaitzak kudeatzaileekin**<br>Enpresa laguntza teknikoaren prozesua |
| 10.45 – 11.15 | **Partaidetza prozesuaren emaitzak ikertzaileekin**<br>Saioetako kontalariak |
| 11.15 – 11.45 | Kafe-etenaldia |
| 11.45 – 14.00 | **Prozesu parte-hartzaile irekia**<br>"Lehentasunezko kudeaketarako ikerketa ildoak. Iraunkortasuna lortzeko beharrezkoak diren aliantzak eta eraldaketak"<br>Ikertzaileak eta kudeatzaileak<br>Parte-hartzearen prozesuan lagundu duen enpresa teknikoak dinamizatua. |
| 14.00 – 14.30 | Kongresuaren amaiera |
| 16.00 – 19.00 | Irteera |

## LABURPENAK

Kongresuan parte hartzeko **Laburpenak** beharrezkoak izango dira, bai **KOMUNIKAZIO** formatuan, bai **POSTER** formatuan. Bi kasuetan, laburpenak aurkezteko amaiera-epea **2019ko Apirilaren 20** da. Komunikazio modalitaterako laburpenak gehienez **400 berba** izango ditu.

Ahozko edo posterreko komunikazioetarako proposamenak Kongresuko webgunean emandako formatuaren arabera bidali beharko dira. Egile askoren kasuan, kontaktuaren egilea Kongresuko dokumentua aurkeztuko duen pertsona izango da, izartxo batekin markatu behar dena.

Fitxategia bidali baino lehen, ziurtatu PDF formatuan gordetzen duzula, zein saioatan sartuko den (**S1. Planeta; S2. Gizartea; S3. Onura; S4. Aliantzak eta Hezkuntza. Parte-hartzea**) eta proposatutako komunikazio mota identifikatzea (ahozkoa edo posterra).

Laburpenak Zientzia eta Aholku Batzordeak ebaluatuko ditu, eta jasotako laburpen kopuruaren arabera, horietako bat kartel edo komunikazio moduan bidaltzea beharrezkoa den erabakiko duena.

Batzorde Zientifiko eta Aholkulariak KOMUNIKAZIO gisa onartutako laburpenen hautatutako egileei artikulu bat eskatuko die, zehazteko dagoen **NAZIOARTEKO ALDIZKARI BATEN EDIZIO BEREZI**an argitaratu dena.

## Laburpen eredua

**Laburpenak komunikazioak@uik.eus emailera bidali.**